

AZERIA ETA OTSOA

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1923an

Antzina patadiak behar txarrak egiten zituzten, eta horiek harrapatzeko asmoz tranpak jartzen zizkieten.

Baten otsoa harrapatu zuten eta tranpan bertan gosez amorratzen egon zen debora luzez.

Gizaki bat igaro zen hura zegoen lekutik eta -lagundu!- oihu egin zion otsoak.

Gizakia errukitu egin zen eta askatu egin zuen.

Otsoa gose zenez gizakia bera jan behar zuela esan zion.

Gizakiak esan zion mesede hori eginda nola jango zuen bera.

Orduan erabaki zuten euren ondotik igarotzen zietenei galdetzea nola ordaintzen zen ondo egina.

Bidetik zihoazela astoa aurkitu zuten. Ondokoa galdetu zioten:

- Ondo egina nola ordaintzen da?

Astoak erantzun:

- Oraintxe esango dizuet nola: ugazabak errotara bidali nau zaku handia lepoan nuela, eta zakua kendu ostean, jatekorik eman gabe, makilarekin jo eta basora bidali nau: *ondo egin pagoa eta ondoan paloa*.

Otsoa orduan poztu egin zen.

Aurrera zihoazela bigarren bat, azeria, aurkitu eta ondokoa galdetu zioten:

- Ondo egina nola ordaintzen da?

Azeriak esan zien orduan:

- Galdera horri erantzuteko otsoa nola egon den ikusi behar dut.

Tranpa zegoen lekura joan ziren.

Orduan azeriak esan zion gizakiari:

- Jar ezazu otsoa tranpan aurkitu duzun modu berean.

Jarri zuen lehenago zegoen moduan.

Eta jarraian azeriak esan:

- Jo ezazu otsoa buruan aitzurrez.

Gizakiak otsoa hil egin zuen.

Egindako mesedeagatik oilanda pare bat agindu zion gizakiak azeriari.

Azeriak katamixar bat zuen lagun.

Txakurrak katamixarraren atzetik zebiltzanean tantaietara igotzen zen eta txakurrek soilik jartzen zuten azeria estatusunean.

Orduan azeriak katamixarrari bernak jartzea proposatzea erabaki zuen. Katamixarrari, bidean, sasi artean zebilela, arantzak sartzen ari zitzaizkiola, esan zion eta horrela ez zuela inolako arazorik izango sasi artetik ibiltzeko.

Pernak jarri zizkion, intxaurrak erdibi eginda, haien azalekin, zulotxoak egin eta kordelez lotuta.

Pozik zegoen katamixarra azeriak pernak jarritakoan.

Geroago gizakiak eskainitako oilanda biak hartzera joan ziren.

Gizakiak txakurrak ekarri zizkien zaku barnean oilandak zirela esanez.

Azeriak, orduan, esan zion gizakiari:

- Oilanda onak izango dira, ezta!

- Gizakiak, -baietz erantzun-, eta gero txakurrak askatu zituen.

Orduan, txakurrek, aurea hartu zieten katamixarrari eta azeriari. Katamixarra tantaira igotzen hasi zen, baina pernek irrist egiten zioten eta txakurrek harrapatu egin zuten. Bien bitartean, azeriak ihes egin zuen bere gordelekura.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973